

27. atala
SARRI, SARRI

Jone eta Aritzek asteak zeramatzaten lurretako historiako pasarte ezberdinak ezagutzen. lurretako lehenengo aztarnetatik hasi eta gaur egunera arteko kontu ezberdinak deskubritu zituzten.

- *lurretarrok ere lortu ditugu gauza haundiak historian zehar Aritz!*
- *Argi dago bai!*
- *Eta herritar batzuek ekarpen handia egin dute benetan.*
- *Ekarpena? Zertan adibidez?*
- *Bertsolaritzan, kirolean, literaturan... - Hasi zen Jone zerrendatzen – Joseba Sarrionandiaren izena ezagun egingo zaizu zuri ere ezta?*
- *Bai! Idazle bat da ezta?*
- *Hala da bai! – jarraitu zuen neska – euskal idazle emankorrenetako bat.*
- *Eta lurretarra da? – Galdetu zuen mutikoak.*
- *Jakina Aritz! 1958. urtean jaio zen lurretan. Deustuko unibertsitatean ikasi zuen eta Euskal Filologian lizentziatu zen. Zeruko Argia, Anaitasuna, Jakin eta Oh! Euzkadi aldizkarietan argitaratu zituen bere lehen lanak, luze joko liguke Josebak egingo dako lan guztiak zerrendatzeak.*
- *lurretan bizi da orain ere? – Galdetu zuen mutikoak.*
- *Ez, ez! – Bota zuen Jonek barre algaraka. – 22 urte zituela ETA-ko kide izatearren atxilotu zuten*



Joseba

Sarrionandia


ARIKETA:

- Gai al zara Josebak idatzitako hiru liburu aipatzeko?

baina handik bost urtera kartzelatik ihes egitea lortu zuen eta erbestera jo zuen.

- *Ihes egin zuen kartzelatik? – Galdetu zuen Aritzek harrituta.*
- *Hala da bai, hori dela eta sortu zuen “Kortatu” musika taldeak “Sarri, sarri” abestia. – Jarraitu zuen Jonek – Josebaren lanetan askotan atera da espetxearen eta erbesteraren gaia. Lan asko eta asko argitaratu ditu orduetik ere, sari ezberdinak jaso izan ditu eta asko dira musikari ezberdinek musikatutako bere olerkiak ere.*
- *Baina orduan non bizi da Jone? Nondik idazten du?*
- *Josebaren argazki zahar bat izan da urte askoan izan genuen erreferentzia bakarra baina 2016. urtean argitu zen Kuban bizi dela, Habanan. Bertako Unibertsitatean Etxepare Euskal Institutuarentzat lanean.*
- *Hara! Itzuliko al da berriz lurretara?*
- *Ez dakit Aritz! Bitartean bere lanekin gozaten jarraituko dugu guk.*